

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Maiatzaren 26ko foru eta kontzeju hauteskundeak antolatuko dituen batzordea sortu da

Beaumont kontseilaria buru izango duen organo iragankorra da, eta sei kide izango ditu

Asteazkena, 2019.eko otsailak 6

Nafarroako Gobernuak gaurko (asteazkena) bileran onartutako akordioaren bitartez, Nafarroako Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeak antolatuko dituen batzordea sortu da. Hauteskunde horiek maiatzaren 26an izango dira udal-hauteskundeekin eta Europako Parlamenturako hauteskundeekin batera (horiek Estatuari dagozkio).



Organoa iragankorra izango da, eta hauteskundeak egin aurreko hilabeteetan eratzen da, hauteskunde-prozesuen prestaketan inplikaturiko agenteak koordinatzearen. Horren baitan, Hauteskunde Bulego bat egongo da.

Partaideak eta funtzioak

Batzordearen buru Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilaria, María José Beaumont, izango da, eta bertako partaideak lan horietan zuzenago inplikaturiko unitate organikoetako arduradunak izango dira; zehazki, honako hauek: Lehendakaritza eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusia, Edurne Eginola; Informatika, Telekomunikazio eta Berrikuntza Publikokoa, Mikel Sagues; Toki Administrazioakoa, Xabi Lasa; Komunikazio eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendaria, Pello Pellejero; Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuko idazkari nagusia, Olga Artozqui; eta ondoren Hauteskunde Bulegoaren koordinatzaile izendatuko den pertsona, idazkari bezala arituko dena.

Organoaren helburua izango da hauteskundeak antolatzea, prozesu konplexuak baitira, garatzeko "organo ezberdinen eta haien baliabide naturalen eta pertsonalen parte-hartzea, lankidetzeta eta koordinazioa" behar izateagatik. Hartutako akordioan, halaber, sortzen diren premien arabera, batzordearen bileretan kide berriak sartzeko aukera jasotzen da.

Horrez gain, batzorde horren mende, Hauteskunde Bulegoa izeneko lan-taldea sortuko da. Horko kideak organo honetan ordezkaturako zuzendaritza nagusien zerbitzura dauden edo beste unitate batzuetako langileen artean izendatuko dira, eta koordinatzaile batek koordinatuko ditu.

Hauteskunde-egutegia

Emango diren urrats nagusien eta maiatzaren 26ko emaitzen berri herritarrei emate aldera, Nafarroako Gobernuak 2019ko hauteskundeei buruzko [web orria](#) aktibatu du.

Gaurko akordioarekin hauteskunde-prozesua abian da, eta egutegia ondorengo izango da:

- apirilak 2, Parlamentua desagitea eta hauteskundeen deialdia egitea.
- apirilak 17-22, hautagaien aurkezpena.
- apirilak 24, behin-behineko hautagaien argitalpena.
- apirilak 29, hautagaitzen jakinarazpena.
- apirilak 30, behin betiko hautagaitzen argitalpena.
- maiatzak 10-24, hauteskunde-kanpaina.
- maiatzak 26, hauteskunde-eguna.